

Urduña hiria 13



13

Urduña hiria

Nerbioi ibaiaren ibilbideari jarraitzen dion BI-625 errepidea izango da Urduñaraino hurreratuko gaituena.

Araba eta Burgos probintzien arteko enklabe edo barrendegia, paisaia gorabeheratsukoa, goi-mendiz inguratua, hortxe bilatzen dute babes hiriak eta inguruko herrixkek. Urduñak, historia, monumentu eta arte mailetako altxor ugari dauzka.



Aurreko orrialdean:

Urduñako Santa Maria. San Pedroren erretaularen Erdi Aroko adierazkortasunaren adierazgarri onena da inguru honetan.

Orrialde honetan:

Urduñako bista. Mendatearen azpi-azpian kokatua, hasieran herri hau itsasoaren eta Mesetaren arteko trukaketa-lekua izan zen.

131. orrialdea, goian:

Harresia. Hiri zaharretako harresiek segurtasuna bermatu behar zuten garai gorabeheratsu haietan.

131. orrialdea, behean:

Santa Maria. Eraikin ikaragarri honetan deigarria da hiritik kanpora begira daukan defentsa-horma, horrelakoak gutxi direlako gurean.

Harresiak

Urduña birritan eratutakoa da.

Lehendabizia 1229an (Lope Diaz Haroko jaunak) eta bigarrena 1256an (Alfontso x.a Jakituna erregeak). Bietan eraiki zuen babeserako harresi edo murru bat, Erdi Aroko hirietan ohikoa zen bezala. Harresi horietako zati batzuk zutik daude, baina portaleak desagertu egin dira. Historiaz eta gatazkez mintzo zaizkigu. Kareharrizko harlangaitz-hormek 9 metro inguruko garaiera dute eta 1 m-ko zabalera, zatirik ikusgarrienak Andra Maria elizaren eta baratzen eremuan egonik.



Andra Maria eliza

Eraikin zabal hau horrela dago antolatuta: mailakatutako hiru habearte, gurutzadurarekin, gehi lau tarte eta lauki-itxurako kapera nagusia, eta alboetan beste kapera pribatibo batzuk. Oro har, sekzio prismatikoko sei zutabetan eusten diren izar-gangen bidez dago estalita. Burualdearen aldetik, erronda-bide batek –esekirik eta estalita– horma-bularrak zulatu egiten ditu, sakristiaren goiko alderaino luzatzen delarik, horrela hiria babesteko sistemari lagunduz, Bizkaian oso bitxia bada ere. Oinetan, berriz, dorre handi bat dauka, 1617koa, kanpai-gorputz klasizistakoa. Alde horretan badu, gainera, arkupe edo arkuetako elizpe bat, 1788koa, neoklasikoa, Manuel Martin Carrerak egina.

Funtsean XIV–XV. mendeko gotikoa eta oso monumentala, Andra Maria eliza oraintsu zaharberritu dute. Baina osagai guztietatik bitxiena babeserako erronda-bidea da, Bizkaian ohizkoa ez dena.

Erretaula nagusia. Prebisterioan, zutabe izurrak eta ildaskatuak dauzka, kaleak zehazten dituztenak. Neoklasizista, Martin Aranek diseinatu zuen 1650. urte inguruan. Jose Palacio Arredondo izan zen, berriz, erretaulako inspirazio naturalistako erliebe eta taila ugariren eskultorea.

San Andres erretaula. Olaso kaperan, eskuin aldera. Triptiko-motako

altzari landuko obra bikaina: pedrela edo bankoa, bi solairu gehi atikoa, hiru kaletan banatuta. Erretaularen mazoneria modernoa da, gainerakoa ez, eta sekulako xehetasunak ditu ambientazioetan, baita eskultura txiki eder eta adierazkorrek ere. Herran-Arbietotarrak izan ziren obra honen sustatzaileak, eta Anberesetik ekarriko zuten, eta seguruen hiri horretan egingo zen 1520an estilo gotiko berantiarrean. Arte-mailako balio handia dauka.

Ezkerreko albokoan, Guadalupe kapera 1584ko data duen burdinazko hesi eder batez ixten da, berez agertzen duen lehen manierismorako guztiz berandukoa den data izan arren. Barruan mahatsondo-irudiak dituzten zutabeez apaindutako erretaula dauka, agian Antonio Alloitz (1660 inguru) erretaula-egile eta eskultorearena izan daitekeena, tailatako gai nagusia natura izanik.

Ortes Velasco jauregia

Andra Maria elizaren inguruan bertan, bada masa kubiko bat, trinkoa, bi portale errenazentista eta leihoburu gisa erabilitako hainbat bao dituen, berau ere XVI. mendearen erdiko. Arkupedun atari bat dauka itsatsia, hiriaren kanpoaldera erantsia, 1598koa, Andres Garitak egina.

Udaletxea

Plaza nagusiko arkupeetan parte-hartzen du eta aurretik zegoen eraikuntza bateko osagaiak berrerabiliz eraiki da. Behean, arkupean, arkupeko hiru pasabideetako bat Yerro kaleari uzten dio. Horren gainean bi solairu daude, eta gorago hirugarren bat, modernoagoa eta adreiluzkoa. Balkoi nagusia, Merkatu plaza –egun Foru plaza– aldera begiratzeko toki aparta da. Eraikin barrokoa (Tomas Peña, 1771).

Familia Santua eliza

Indiano batek emandako diruari esker, Juan Urdanegik jesuiten ikastetxe bat sortu zuen Urduñan XVII. mendean,



eta eraikinak xx. mendera arte iraun zuen. Horko eliza mailakatutako hiru habearteko erakina da, hiru tarte eta gurutzadura-gorputza gehi burualdea dituena. Adreiluzko gangen bidez dago estalia, igeltsuko hosto-osagaiez apainduak, plastikotasun handia ematen diotenak. Esanguratsua da plaza aldera begiratzen duen arkupea, hiru arkutakoa eta fatxadaren beheko erregistroa osatzen duena; bigarrenen hiru landare-pikor dauzka, armarri eta errotuluekin, eta gainean bi kanpai-horma, kareharrizko harlanduzkoak.

Santiago Raonek diseinatu zuen 1680an eta, berez, barrokoaren apaingarriak jaso zituen Bizkaiko lehen eraikina izan zen.



132. orrialdea, goian:
Antiguako santutegia. Handia da harekiko jaiera inguruetan. Ganbara txiki bat dauka Birjina gurtzeko.

132. orrialdea, ezkerrean:
Foruen Plaza. Hemen salerosten zen «Urduñako ogia», Gaztelako mandazainek ekartzen zuten garia, alegia; XVIII. mendean Aduana eraiki zen.

132. orrialdea, eskuinean:
Familia Santua. Jesuiten ikastetxe zaharreko eliza da, eta behar-beharrezkoa suertatzen da Bizkaiko arkitektura barrokoa nola bilakatu zen ulertzeko.

Orrialde honetan:
Familia Santua. Juan de Urdanegi amerikanoaren kargu jarriak, altzariak barrokoak dira (1866), hango garaietako erara.



Erretaula nagusia eta alboetakoak. Adbokazioak aldatu zitzaizkielarik, hainbat irudi moderno jarri ziren, izpiritu barrokoari protagonismo eman izanaren adibide onak, zutabe salomonikoetan gora mahatsondo-hosto eta mahatsak apaingarri gisa jarrita. Felipe Castillok diseinatu zituen zur polikromatuko makina hauek eta Martin Hoyok zizelkatu zituen 1688an jatorrizko erliebe eta eskulturak.

Aduana
 Eraikin zabala, etzandako paraleleipedo oso luzearen forman antolatua, patio inskribatu handi batek –berau ere angeluzuzena izaki– zulatua. 1833ra arte izan zen aduana, orain beste erabilera batzuetarako birziklatu baita.

Fatxadan, garaieran hiru maila eta hiru gorputzeko hamahiru bao-ardatz dauzka, behekoan arkupe jarraitu bat eta gainerakoetan leihoburuak. Erdiko gorputzari eragiten dion frontoi triangeluarrak apurtu egiten du nolabait etzandako dimentsioa.

Egile ezezagunekoa, baina agian Justo Antonio Olagibel gasteitzar akademikoarena izan daiteke; plaka batean 1787 data jartzen du.

Estilo neoklasikoaren berezko balioez gain: diseinu gogorra, azalen eta gainerakoen leuntasuna, funtzionaltasuna eta noblezia uztartuz, ezarri zitzaion hiri kutsua baloratu behar zaio, plaza aldera –plaza horretako alde bat osatuz– duen arkupe zabalagatik.

Mimenza jauregia
 Berau ere plazan bertan delarik, bigarren fatxada Orruño kale alderantz, bigarren sarbideak estilo klasizista zorrotzaren ezaugarriak biltzen ditu, eta ez nagusiak, arkupea duenak, arkupearen harlanduzko sei arku apalduen sekuentziarekin; horren gainean bi solairu eta bistazko adreilu trinkoko ganbara gehi erdian jarritako armarrria daude. 1529ko armarrria berrerabiltzen badu ere, funtsean pixka bat geroagokoa da.

Eliza Zaharreko (Antiguako)
 Andra Maria pasealekuko txaletak Etorbidea, 1882an irekia, harrsiz kanpoko hiri zabalgunere interesgarria da, familia batzuek zabalgunere horretako lur-zati handietan txaletak egin zituztelarik, eta Andra Mariaren Lagundiak neskenzako ikastetxe bat, 1883an. Txaletei dagokienez, estilo eta arkitekto ezberdinetakoak dira. «Old English», neoeuskalduna... estiloetakoak; Manuel M^a Smith, Emiliano Amann... arkitektoenak, xx. mendearen hasierakoak.

Eliza Zaharreko (Antiguako)
 Andra Maria santutegia Urduña hiritik kanpo, trenbidearen beste aldean, mendixka batean. Behin, antzina, artzain batek Ama Birjinaren irudi bat aurkitu omen zuen, masustondo batean katigatuta; hortxe hasi omen zen toki santu honen historia. Irudia gordetzeko eraiki zen santutegiari buruzko aipamena egin zen XIII. mendeko agiri batean eta bertan jada santutegi zaharraz hitz egiten da.

Zatirik zaharrena, lekaimeen komentuko arku itxurako ate gotikoa da, XIV. mendekoa, eta Gaztela eta Leongo armarrria dauka. 1752an hasi ziren eliza barrokoa eraikitze lanak, Juan Bautista Ibarraren proiektuan oinarrituta. Gurutze latinoaren forma dauka: hiru tarte, gurutzadura eta burualdea, eta burualdearen atzean, ganbaratxoa. Elizaren aurrean, kareharri grisezko harlanduzko fatxada bat, apaindurarik gabekoa eta indartsua, buruan kanpai-horma bat duela, eta behealdean zutabe indartsuen gaineko arkupea.

Erretaula nagusia. Presbiterioaren bir-moldaketa osoaren barruko osagaia da, marmol-itxurako zutabe beltz handien arteko kale bakarrekin, atzealdean beneratu daitekeen Ama Birjinarentzako agertokiaren zerbitzupuan, toki berean ganbaratxoa egonik. Alejo Miranda akademiko neoklasikoak diseinatu zuen, 1804an. Taila titularra, XIV. mendeko Andra Maria eseriaren irudia da.

